HAMABOSKARIA - 2005eko urtarrilaren 7a - X. urtea - Usurbil, 196. zenbakia

www.noaua.com

# N u !



Jaien ondorengo ajea



# Gure zain daude




URDAIRA
Sagardotegia
Urtarrilaren 14an irekiko dugu!
Aginaga, Tel.: 943 37 26 91
Egunero irekita, igande gauetan izan ezik.


INTZA
ILEAPAINDEGIA
PROMOZIO DESBERDINAK
BERTAN KONTSULTATU
BOLARIUMA
ILEKO TRATAMENDUAK:
KASPA . ILE ERORKETA
ESTETIKA ZERBITZUAK:
MAKILAJEA . AURPEGIKO
TRATAMENDUAK . DEPILAZIOAK
MASAJEAK.
943 36 36 41


PORTULARRUME
urte berri on!
Iturgindegia
Bainuko altzariak
Mota guztietako manparak
KALE NAGUSIA, 10
943 36 46 37 (DENDA)
943 36 52 99 (ETXEA)

# Txirrikitutik !

Honako argazki honek baditu 60 bat urte gutxienez. 1940. urtean herriko sarrerak gaur egun duen itxurarekin antz gutxi zuen, gaur ez bezala, baratz eta zelai ugari ikusten zen orduan bazterretan. Kale Nagusiaren ezkerraldean Altunanea, Sutegi berri, Juandeuntzanea haundi, Juandeuntzanea txiki, Barberonea, Erreroanea, Erretoretxea, Elizalde, Saroe jauregia eta Portuenea etxeak ikusten dira. Eta eskuinaldean berriz, Salbatore eliza, Olanoenea, Arrillaganea, Berreiartzenea, Paris berri, Tolaretxea, Paris, Miserikordia eta Aritzeta. Behekaldean, berriz, Eguzkitza baserria.



Argazkilaria: ezezaguna, Usurbil herria, 1940. urtea
Jabea: Kutxa Fototeka

## Noaua!

**Argitaratzailea** : NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21
elkartea@noaua.com
www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

**Publizitatea:** publizitatea@noaua.com

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

**Informatika**: Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa**: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - **ISSN:** 1136-6818
**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***Noaua!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

**AZALA**
**Txotx garaia hastera doa.**

# Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE ____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN ____ 6. ORR.

GABONETAKO IRUDI AIPAGARRIENAK ____ 10. ORR.

LASTER HASIKO DA TXOTX GARAIA ____ 12. ORR.

Sagar ugari bildu zen udazkenean. Orain, sagardo berria dastatzeko garaia da. On egin!



AURTENGO XEXTOEN IRABAZLEAK ____ 14. ORR.

BEHEMENDI ELKARTEAREN ESKAINTZA ____ 16. ORR.

LEHIAKETA ETA DENBORAPASA ____ 19. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK ____ 22. ORR.

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak
Euskal Herrira!

## Zutabea !



LUIS ARANALDE

# Urte berri on

NOAUA!ren azken alea Gabon aldia amaitu ostean hartuko duzue. Kaleetako argi koloretsuak itzali dituzte, "girnalda zaparrada horterak eta Papa Noël bizar artifizialez mozorrotuak" ere desagertu dira. Urtarrileko aldapari ekin diogu kiloren bat gehiagorekin.

Kazetari askok pesteak idatzi dituzte Gabonaren gainean. Hona hemen esaldi bitxi batzuk: "Gabonak obszeno bihurtu dira aspaldian…", "Erregeek xarma galdu dute, milaka eta milaka etortzen dira orain telebistatik barrera, urre faltsuz beterik, iragarki publizitarioz apaindurik...", "Gabon garaian bizitza ez da deus, topikoz jositako maskara edo estalkia ez bada...", "Hasi dira Gabonak, hasi da tripa festa...".

Nik zer esatea nahi duzue? Gabonak dira niretzat urtean zehar ospatzen ditugun festa politenak, goxoenak. Gabon gaua, adibidez: 18-20 bat biltzen gara, zahar eta gazte, on eta traste, esaten den bezala. Aurten bost bilobatxo gurekin. Ederki afaldu ondoren, nik pianoa jo eta haur hauek abesten hasten direnean " Hator, hator", "Birjiña maite" eta abar, nire pozak ez du neurririk. Beren kontziertotxoa eman ondoren, nire koinatu zaharrak (82 urte) aurreskua dantzatzen du. Norbaitek asma dezake lagunarte ederragorik, festa hunkigarriagorik, poz sanoagorik? Nire familia, besteak bezala, sinestedunez eta sinesgabeez osaturik dago. Baina, elizak eliza, kredoak kredo, Gabonaren mezua gizadi osoaren ondarea da eta amets hori errealitate bihurtu nahiaren adierazgarri da nire familiako Gabon festa.

Jakin badakit nik ere, lehen aipaturiko kazetari horiek diotenak baduela zerikusirik Eguberri aldian gertatzen denarekin. Telebistan ere ikusi ditugun zenbait erreportajek min egiten du: gosearen tirania, sabel puztuak, amen inpotentzia, esnerik gabeko bular zimelen desgrazia, Asia Hego ekialdeko lurrikaka eta bertako eszena apokaliptikoak. Horrek zer esan nahi du: Belengo Haurraren mezua ez dugula ospatu behar? Orduan ere, gaur bezala, gizaki miserablerik eta hondamendirik bazen, baina, anaitasun unibertsala predikatu zuen eta berori gauzatzen saiatu.

Ez naiz mezu katastrofisten zale, ez dut ikusi nahi Gabonaren alderdi ezkorra bakarrik; norberari dagokio ia guztiz komertzializatu den ospakizun honi zentzu baikorra ematea. Ez al gara bada libreak neurri batean bederen? Ezin al diogu aurre egin propagandaren manipulazioari? Gure esku dago. Hats berri bat eman behar ligukete festa hauek, urtean zehar eta desanimatu gabe mundu berri baten eraikuntza lanari ekin diezaiogun.

"Utz ditzagun musika zaharrak /eta Belengo airean /jar gaitezen handi eta txiki/ bihotz garbien mahaiean" dio bidali didaten "christmas" batek. Horra hor programaketa polita inauguratu dugun urterako. Urte berri on!

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - **Luis Aranalde** - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

---

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.
IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!**K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.
NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
**Hurrengo alea**: Urtarrilak 21. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Urtarrilak 14.
**e-posta bidez:** erredakzioa@noaua.com

EUSKAL OKELA
LK T
UT ZE ITZU
F IT K
ZKI K
ETXEK IKTU K
K NGEL TU K
h k k l , 4
T II 43 3 57 42

H n k n Uz n n, s l z
USU ILG H TZ KLINIK
FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E
K l N us , 2 l.C 2 17
Tlf 3 37 7 USU IL

# 2005 urteko udal zerga egutegia

**Urte berri honi dagozkion zerga eta prezio publikoen tarifak onartu ondoren, errolda bidez kobratzen diren zerga desberdinen ordainketa epeak eta helbideratuta dauden kasuetan zergak kontu korronteetan kobratzeko egunak zehazten dira honako orrian.**

**-Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga (2005).** Martxoaren 1etik maiatzaren 16ra. Helbideratuak maiatzaren 3an kontu korrontean kargatuko dira.

**-OHZ (Ondasun Higiezinen Zerga, `Kontribuzioa´, landa eta hiri izaerakoak) (2005).** Maiatzaren 16tik uztailaren 4ra. Helbideratutako zergak, uztailaren 1ean kargatuko dira zergadunaren kontu korrontean.

**-EJZ (Ekonomi Jarduera Zerga) (2005).** Urriaren 3tik azaroaren 10era bitartekoa. Epearen erdialdean kargatuko lirateke helbideratuta dauden agiriak interesatuen kontu korrontean.

**-Espaloian zehar ibilgailuak sartzea (Badoa) (2005).** Urriaren 3tik urriaren 31era bitartean. Epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke helbideratuta dauden agiriak.

**-Ura, estolderia eta zaborra hiruhilabetero.**

4. hiruhilabetealdia(2004): Otsailaren 1etik martxoaren 15era.

1. hiruhilabetealdia(2005): Ekainaren 1etik uztailaren 15era.

2. hiruhilabetealdia(2005): Irailaren 1etik urriaren 17ra.

3. hiruhilabetealdia(2005): Azaroaren 2tik abenduaren 15era.

**Asteroko merkatuaren erabilpen tasa:**

1.go hiruhilabetea: Apirilaren 1etik apirilaren 30era.

2.go hiruhilabetea: Uztailaren 1etik uztailaren 30era.

3. hiruhilabetea: Urriaren 1etik urriaren 31era.

4. hiruhilabetea. Urtarrilaren 1etik urtarrilaren 30era (hurrengo urtean)

Ura, zaborra, estolderia eta asteroko merkatuaren erabilpen tasen erroldaldetako helbideratutako agiriak epearen aurreneko egunean kobratuko lirateke.

Errolda fiskalek, sujetu pasiboek ordaindu beharreko kuotak eta zergako elementuak biltzen dituzte, eta hauek jendaurrean ikusgai jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik eta hamabost eguneko epez.

Aipatu erroldetako zergek, dagozkien erregistroetan alta ematerik suposatzen ez dutenez gero, baizik eta subjetu pasibo bakoitzari dagokion erroldan alta eman zaion egitate zergagarri bati dagozkionez, kolektiboki jakinaraziak izango dira, Zergen Foru Arau Orokorreko 124.3 artikuluan aurrikusitakoaren babespean.

Errolden erakustaldi publikoen aurka birjarpeneko errekurtsoa tartejarri ahal izango da erakustaldi publikoko epearen azken egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean.

Obra baimenaren zergak, Jarduera irekierak. Gobernu Batzordeak hartutako erabakiarekin batera dagokion zerga kitapena, subjetu pasiboak adierazitako helbide fiskalean jakinaraziko da, bertan adierazitako borondatezko epealdian ordainketa egin beharko delarik.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, premiamenduzko prozedurari ekingo zaio, ordaindu ez diren kuotek %20ko gainkargua, berandutza interesak eta dagozkion gastuak hartu beharko dituztelarik bere gain.



IBILGAILUEN INGURUKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA MARTXOAREN 1EAN HASIKO DA.

## Familia ugarientzat hobariak

**2005 urterako hiri izaerako ondasun higiezinen gaineko zergan familia ugarientzat hobariak.**

- Usurbilgo Udalak 2005. urtean indarrean egongo diren zerga, tasa, prezio publiko eta kontribuzioen ordenantza fiskalak onartu ditu. Hauen tartean, Hiri Izaerako Ondasun Higiezinen gaineko Zerga edo kontribuzioari dagokionean 2004. urtean bezala familia ugarientzat hobaria onartu du. Interesatuek informazioa udaletxeko zergabilketa sailean eska dezakete.

**Hobariaz baliatzeko baldintza formalak.**

- Aplikazioaren zerga aldiari dagokion sortze egunean familia ugariaren titular izaera daukaten Hiri Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren subjektu pasiboek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

* Interesdunaren eskabidea, Udalak erraztuko du eredua.

* Familia ugarien tituluaren fotokopia konpultsatua.

* Udalak urtarrilaren 1ean familia unitateko kideak erroldatuak daudela egiaztatuko du.

Hobariaren eskaera 2005. urteko otsailaren 28ª baino lehen egin beharko da.



Txokoalde

Iñaki Labaka

# Urte berri on denoi

Hemen gara berriro gabonak pasa ondoren. Aurtengoan, azken urtean bezala, haur usurbildar talde batek ekarri zuen bere kantuekin gabon giroa gure txokora. Oso goiz etorri zirenez, uste genuen atzetik talde gehiago etorriko zirela kantari txanponak eske, baina ez zen horrela izan.

San Esteban Txiki egunean, igandea zenez, auzoko lagun asko ermitara igo zen meza entzutera. Elizkizuna bukatuta, plazan jaki batzuk jateko aukera iragarrita zegoen. Elurrak eta txingorrak, Urdaiaga gaina izara xuria bihurtu zuten eta hamaiketakoa barruan egin behar izan zen. Auzoan nabarmendu zen eguraldiaren eragina, elkartean ez baitzen eguerdian inor azaldu, harritzekoa bada ere, egun berezia izaten denean eta jende mugimenduakin normalean.

Urte berriari ongi etorria, emateko azken urtetako ohiturarekin jarraitzen dugu. Horrela, hamabi mahatsak jan bezain pronto, suziriak bota eta bota hasi zen zenbait auzotar, ez zen giro. Danba! batetik. Danba! erantzuna bestetik. Zarata, berriz, sekulakoa. Hogei bat minututan pasatxo ez ziren isildu. Tartean koloreko suak ere jaurtitzen zituzten.

Bestalde, sarritan aipatu dudanez, gure auzoko txokoak dituzte anguleroak estimatuenak, bazterretik jarduteko angula harrapatzeko ahaleginetan. Aurten izan den prezioa ikusirik, gainera, lagun asko hurbildu da ibai ertzera, ordu batzuk aurretik toki egokiena hartzera. Askotan ikusten dira anguleroak zubian marea igo zain. Behin argiarekin bazterrean kokatuta, bahea sartu uretan korrientearen aurka eta ea zortearekin angula mordoa harrapatzen den. Noizbait motorren bat etortzen bada aldamenean igaroz, urak arrotuz eta dena arrastatzen sortzen dira komeriak. Azkenaldian lehorrean ari direnen eta motorean dabiltzenen artean iskanbilak izan dituzte, azken hauek nahiko toki ez Orio aldean dirudienez, eta bere etxean ibiliko balira bezala auzoko zubitik gora pasa dira, besteen haserrerako.

Aurreko uraldietan angula harrapatu zen. Saldu ez zutenak gabonetan jango zuten. Orain berriro arrantzako tramankuluak preparatzen ariko dira beste proba egiteko, hilaren 10an illargi berria denez hurrengo marea tokatzen baita. Egun horietan saiatu beharko du angula harrapatu nahi duenak.



Kaleberri

Iñaki Agirresarobe

# Urtarrilaren 22an, Bertso Eguna

Urte zaharraren hondarretan murgiltzen den gau giroko uneak "zoriontzeko" abagunea ematen du, eskemak hala "eskatzen" baitu. Denok ardiak gisan agurtzen, zoriontzen, telefonoko lineak gainezka egin arte deika aritu... Egun honetan denak zoriontsu izan behar dugu, bestela artaldetik at kokatzen baikara. Egunerokotasunean triskantzak gertatu arren, gau honetan denok irribarretsu egon behar dugu, 12,00etan txanpaina edan, serpentinak jaurti, su artifizialak nonahitik piztu, petardoak nolanahi bota (arriskuaz jabetu gabe). Hurrengo eguna, aldiz, bezperaren aurkakoa suertatzen da, gauaren olatu osteko kondarrak basamortuaren erdian gelditzen dira: norabaitera joan nahi izanez gero, dena itxita eta guztiok mutu.

Bestalde, urtarrilaren 22an Bertso Eguna ospatuko da urtero legez. Arratsaldeko 18:00etan Donostiako Kursaalen ekitaldi nagusia izango da eta bigarren zatia, aldiz, Zubietako Araeta sagardotegian gaueko 9:00etatik aurrera (afaria eta bertso festa). Bertara hurbildu nahi duen orok Bertsozale Elkartean egin dezake enkargua 943217798 telefonora deituz. Ahal den azkarren erreserba egitea komenigarria da afarirako txartelak berehala amaitzen baitira.



# Urte zaharra joan, berria etorri

Kalezar



ANDONI UDABE

Kaixo NOAUA! zaleok eta urte berri on denoi! 2004a bukatu da jada eta 2005aren hasiera honetan hainbeste ospakizunen ondoren idazten jartzeak pereza pixka bat ematen badu ere, urtea sasoi betean astea komeni da. Izan ere, milaka asmo eta proiektu izan ohi ditugu garai honetan, nahiz eta gehienak urte erdira heltzerako denak hankaz gora jartzen ditugun. Batzuk (edo gehiengo batek esango nuke) tripa festa hauen ondoren (euskaldunak nola garen ikusita, harritzekoa ere ez da) gure azalean lapak arrokari bezala itsasten diren soberano gantz "maitagarri" horiek botatzeko plana abian jartzen dugu. Lan nekezegia askorentzat!

Beste batzuk solidarioagoak izateko aitortza egiten dute eta ekologiari begi berriekin begiratzekoa, ingurumena zaintzekoa, etb. Beste batzuk, kontsumismo hutsean oinarritzen den gizarte honetan (eta gabonetan zer esanik ez!) gutxiago gastatzeko hitza ematen dute, edo beharrezko gauzetan gehiago gastatzekoa. Azken hauen kontrako aldean, ordea, "txanponitis" gaitzak hartutakoak daude urte berriari dirua, dirua eta dirua eskatzen dutenak (jarrera simple bezain tristea nire aburuz).

Osasuna eskatzen dutenak ere badaude, jarrera inteligentea oso, ezer aurreko eskari guztiak beteta ere alperrik dira denak disfrutatzeko osasunik ez badago.

Kontuak kontu, urte bat gehiago pasa da eta nahi edo ez nahi gainontzekoekin batera hau ere bizkarrean eraman beharko dugu.

2004ak Kalezarren (eta Usurbilen) berrikuntza eta itxuraldaketa dezente ekarri ditu: haurtzaindegia, eguneko zentrua, etxebizitzak,… pentsa, sozidadean ere ordenagailu moderno bat jarri dute, atera kontuak!

Ea ba 2005a aurrekoa bezain ona edo hobea datorren. Eskatzea libre da eta!

# Petardo festa

Atxegalde



AINARA ARNAIZ



Urtero bezala, gabonak bisitan etorri zaizkigu, Olentzero eta guzti. Hala ere, familian igarotako egun hauek jada atzean uzteko garaia ere gertu dago. 2004. urtea iraganaren zati bilakatu da eta konturatzerako urte berriari hasiera eman beharrean aurkitu gara, bakoitzak ahal duen moduan, hori bai.

Atxegalden urte aldaketa segituan nabaritu genuen, izan ere, zenbait bizilagunek petardo festa egin baitzuten. Aurreko aste osoan izan genituen zenbait koadrila eginkizun berberean, eta beraz, ez zen ezusteko handia izan urte zahar gaueko espektakulua.

Batzuek diote pasatako urtea ahaztu egin behar dela berriaren mesedetan, hanka onarekin hasteko. Hala ere zaila gertatzen da hori batzuetan, egindako eskaera batzuk bete ez direla ikustean. Baina ez dugu etsiko eta NOAUA!k eskeintzen digun txoko honetatik Atxegaldeko bizilagunon kezka eta iritziak zabaltzen jarraituko dugu.

Oraingoan ordea, ez dago horrelakorik. Besterik gabe, urteberri on bat opa dizuet guztioi eta ea datorkigun urte hau aurrekoa baino hobea den.

Besarkada bero bat etxetik urrun zaudetenoi ere, ea laister batean iristen den NOAUA! norbere etxean irakurriko duzuen eguna.



Santuenea

ALEX TELLO

# Gabonak

Olentzero auzoan izan da, egon al zarete berarekin? Gabonetako erregeak auzotik pasatzean ikusi al dituzue? Opariekin konforme?

Gabonak eta opariak. Egia esan, aspaldian ez dut aparteko gabon-eskaerarik egin!

Opari edo erregaluak… Nolakoak egoki edo aproposenak? Noiz? Zeinentzako? Zergatik? Zertarako? Erosiak, eskuratuak ala sortuak? Eskatuak?... Oparirik gabeko gabonik ez da.

Egunero hartu-eman ditzakegunekin nahikoa? Ekin, ohartu eta'apreziatzean' datza!

Nik, opariak baino, desirak nahiago! Denok, hainbat izango ditugulakoan, jakinak-ezjakinak daitezkeenak. Ea funtsezkoak (hobebeharrez) gauzatzen joaten diren…

Adio gabonak! Denboraren igaroa da, egunerokotasunek urteen maldan gora garamatzate, 2005ean gaude jada!

Urteen kontuez, esaterako, baserriekin solastu ahal bagenu. Nolakoa ote baserrien mintzoa? Nostalgikoa ala kritikoa? Egun ezagutzen dugunaren antzekoa, akaso? Isila.

Baserriaren 'aurpegia' eta haren inguruak adierazi diezakigukenari erreparatu beharko. "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburura jo dezakegu, ze iruditzen?

Aipaturiko liburuan, Josu Tellabide autorea Santueneaz mintzo zaigu ere. Interesgarria guztiz, auzoak bere historia eta pertsonaiak izan baititu. Hortaz, jakinnahia edo kuriositateari bidea eman eta liburuari begiradatxoa ematea proposatzen dizuet.

Beno, urte berri honetan lerro hauekin agurtzen natzaizue. Ondo izan eta hurren arte!



Urdaiaga

NEREA AIZPURUA

# Trakatan, trakatan hiru errege

Agur bero bat guztioi Usurbilgo txoko honetatik eta ezer esaten hasi baino lehen… urte berri on! 2004 urtea atzean utzi eta konturatzerako 2005 urtean sartuak gara jada. Eguberriak ere amaitzear dira eta aurten eguberri egun hauetan eguraldia izan dugu protagonista. Elurra, kazkabarra eta izugarrizko hotza… Hala ere, eguraldi txar hau lagun, hilaren 26an San-Esteban Txiki eguna zela eta gutxik egin zuten huts gurean. Etxetik irtetzera animatu zirenek, meza entzun ostean hamaiketako eder bat dastatzeko aukera izan zuten.



Bestalde, hilaren bostean gau majikoa da denentzat ere.. Izan ere, erregeak etorri zitzaizkigun oriente aldetik denak lo geunden unean, denok ilusio handiz garbitutako zapataren ondoan oparitxoa uztera. Urteroko legez, aurten ere San-Estebanandik barrena jaitsi ziren hiru erregeak, zaldi gainean dotore-dotore… "Trakatan, trakatan hiru errege, trakatan trakatan Usurbila!".

Eta gabonak igaro ostean…. egunerokora… batzuk kirola egitera (turroi eta txanpañak botatzeko asmoz…) eta beste batzuk urte berriarekin batera egindako promesak martxan jartzen ahalegintzera…. Eta ikaslea naizen aldetik…beste batzuk liburu artera!

# Angulak inoiz baino garestiago

Aginaga



OXKAR SANTAMARIA

Urte berri on!! denei. Dagoeneko ajeak pasa zaizkigu eta gabonetako azken txanpa geratzen zaigu. Batzuk oparien zain egongo zarete baina kontuz zeren, ikatza ere ekarri izan dute eta.

Gabonetan beste protagonista txiki batzuk ere izaten ditugu. Askotan hitzegiten degu beraietaz gure auzoan: angulak. Garestiak direla denak dakigu, baina urtetik urtera gero eta garestiagoak dira. Aurten ere, 1.000 euroren bueltan ibili dira angulak. Gabonak izaten dira preziorik altuenak harrapatzen duten urte garaia.

Gabonen aurretik, jende asko saiatzen da plateran izateko adina harrapatzen. Beste batzuk, berriz, xoxa batzuk ateratzeko aritzen dira. Azken urteotan baimen bereziak atera behar izaten dira, bai bazterretik aritzeko eta baita “motorrakin” ibaian gora eta behera aritzeko ere. Hasiera batean, jendeak ez zion kasurik egiten baimen horri, baina konturatu gara beharrezkoa dela. Hau da, ederki kontrolatzen dute baimena nork daukan.

Txalupak, normalean, baia eta guzti egoten dira ur ertzean eta berehala kontrolatzen dute nork duen baimena edo ez. Baina aurten nobedadea, bazterretik aritzen direnei, gauez, baimena eskatzen aritu dira. Auzotar bati baino gehiagori etorri zaio Guardia Zibila baimena eskatzera ibai bazterrean angulak harrapatzen ari zela. Zigorra, berriz, isuna jartzeaz gain, baia kentzea izaten da.

Gau biribila, anguletara joan eta lehen gutxi harrapatzen bazen, orain isuna ordaindu eta ez angula eta ez bairik gabe etxera!! Egongo ez dira ba angulak garesti?

# Argiak eta ilunak

Zubieta



XABIER ARREGI

Gabonak iritsi dira eta bazter guztietan jarri dizkigute argiak, gauero piztuta eta dir-dir. Zubietan ez da argizko apaingarririk antzeman. Ez zait gaizki iruditzen, bestela ere dezenteko kontsumoa daukagu-eta. Hala ere, ustekabeko argia ekarri du aurtengo eguberriak: frontoi estali berriarena. Aspalditik geunden zubietarrok horren zain, eta azkenean iritsi da pizgarria. Eguberrietan joko garbiko pilotaren hotsak aditu ditugu frontoi berrian. Argia piztuta, sare babesgarria jaitsita, eta Zubietako pilotariak negu-neguan entrenatzen. Horrek, sikiera, poza ematen du!

Odon Elorza ere argitasun eske ibili da joan den astean. Ez omen du orain oso argi ikusten errauste-plantarena. Itxurak egiten dabilela jakinda ere, donostiarren artean eginiko inkesta bat aipatu du eta, nonbait, gehiengoa aurka dago. Horrek, jakina, zer pentsa eman dio Odoni, eta komunikabideen aurrean esan




du errausketaren aukera birplanteatu egin behar dela. Zestoan (udalaren gehiengoa EAJ-EAren esku dago) erreferenduma egin dute, eta argi baino argiago azaldu da herritarrak aurka daudela. Zer iritzi dute inguru honetako herritarrek? Zer egin behar du Usurbilgo Udalak herritarren nahia jakiteko eta horren arabera jokatzeko? Oraingoz ez dakigu ezer. Hor ez dago argirik. Hor iluna nagusi.

# Urte berri on!

**Akabo 2004 urtea, akabo eguberriak eta akabo neguko oporraldiak. 2005az gozatzen hasteko garaia da. Bi orriotan, ordea, gabonetako hainbat pasarte ekarri nahi izan ditugu gogora.**

Urtero legez, janez, edanez eta kantuz ospatu ditugu gabonak. Santo Tomas eguneko azokan ikusi ziren lehen baserritar jantziak. Hiru egun beranduago, abenduaren 21ean, Udarregi Ikastolako haurrak izan ziren gabonetako jantziekin kalez kale kantari aritu zirenak. Abenduaren 24an, nola ez, kantu-saioa egun osoko izan zen. Presoen aldeko Olentzero dela, jaiotza dela, eskea dela... kantuan igaro zen eguberrietako lehen egun handia. Olentzeroren belarrietaraino iritsi ziren gure kantu-hotsak. Horri esker, ikatzez eta opariz beterik iritsi zen gure artera.

### "Plis, Plas, Neguan ere Jolas"

Aurten, haurrentzako eskaintza izan da gehien nabarmendu dena. "Plis, Plas, Neguan ere Jolas" egitaraua oparoa izan baita. Gaztetxoek ia egunero jolasean aritzeko aukera izan dute.

Akabo Eguberriak, baina ospakizun gehiago ditugu begibistan: txotx garaia, San Sebastian eguna, Iñauteriak, Aste Santua... Bada bai oraindik zer ospatzerik.



UDARREGI IKASTOLAKO IKASLEEN SAIOAK IKUSMIN HANDIA PIZTU ZUEN.

## 40 urtez, Patriko terrazan gaztainak erretzen

Garai batean "eskotean", denen artean ordaintzen zituzten gaztainak. Gaur egun, Patri etxeko nagusiak, Javierrek, ordaintzen ditu. Lagun koadrila honek arratsalde osoa hartzen du gaztainak erretzeko. Beraiek ekartzen dute danbolina eta arratsalde pasan aritu izan dira urtez urte.

Hasiera batean, inguruko taberna guztietan banatzen zituzten gaztainak, baina, orain, Patrin bertan jaten dituzte. Abenduaren 24an eskean ibiltzen direnak eta 19:15ak aldera Patrira gaztainak jatera gerturatzen direnak; batzuk eta besteak, kantuan pasa ohi dute arratsaldea.

Askok dakite Patrin gaztainak izaten direla egun horretan baina ba ote dakigu nortzuk egiten dituzten eta noiztik? Ea ba ohitura polit hau mantentzen dugun eta erreleboa ematen diegun.





**PRESOEN ALDEKO OLENTZERO**
Urtero bezala, euskal presoen eskubideen aldeko kantaldia egin zen abenduaren 24an.



**LAGUN UGARI JAIOTZAREN INGURUAN**
Abenduaren 24ko jaiotzak herritar askoren arreta bereganatu zuen.



**EGUBERRI ARGITSUAK**
Eguberri gauak argitsuak izan dira, bereziki, Dema-plazan ipinitako iluminazioari esker.




**PLIS, PLAS, NEGUAN ERE JOLAS**
Puzgarriak, zirkoa, magia, kart zirkuitua... Gabonetako eskaintza paregabea izan da aurten.

# Zumarte-Orereta Abesbatza, berriz ere garaile

Gabon Abesti Sariketa Probintzialaren 58. edizioa jokatu zen abenduaren 26an Oreretako Galtzarabordako kiroldegian. Maila herrikoian, Marranta Galanta taldea nagusitu zen. Haurren mailan, Zumarte-Orereta abesbatza; eta federatuen mailan, Eresargi Abesbatza.

Iaz bezalaxe, Usurbilgo gaztetxoak fin aritu ziren eta lehen saria eskuratu zuten.

Ohi bezala, ikusle asko bildu ziren kiroldegian, eta lehiaketan parte hartu zuten abesbatzek maila ona erakutsi zuten. Haurren mailan aritu ziren zazpi abesbatzen artean, esate baterako, Gipuzkoako korurik onenetarikoak zeuden. Garaileen artean, esan bezala, Zumarte-Orereta taldeko gaztetxoak. Zorionak!



# Txoooootx!

**Sagar urtea izan zen iazkoa. 2003an ez bezala, 2004an sagar biltzen hainbat ordu pasa behar izan dituzte inguruko baserritarrek. Irailaren bukaeran hasi eta azaro inguruan amaitu zen bilketa garaia. Sagardozaleak ere, oraintxe dabiltza sagardo berria dastatzeko irrikitan. Has dadila txotx garai berria.**

Sanmiel inguruan hasten da sagar bilketa lana, lehen aleak heldu eta lurrera erortzean. Baserritar batzuk egunean eroritako fruituak bakarrik biltzen dituzte, beste batzuk, ordea, zuhaitzean daudenak astindu eta erori arazi egiten dituzte, modu horretan bilketa saio bakarrean lana bukatutzat eman dezakete. Udazkenean, txoko askotan ikusi ahal izan da sagar biltzen ari zenik. Batzuk, antzina bezala, etxean sagardoa egiteko; gehienek, ordea, sagardotegiei saltzeko.

Eskuz edota kiskilarekin egiten da bilketa. Kiskila, puntan iltzea duen makil luze bat da. Bilketa lana errazten du tresna horrek, gehiegi makurtu beharrik gabe sagarra biltzea errazten baitu.

### Urte oparoa

Esan dugu. Sagar urte ona izan da aurtengoa. Hainbat sagarrondoren adarrak, fruituen pisuaz, okertuta ikusi ahal izan dira uda guztian zehar. Iazko lehorteak sagar eskasia ekarri zuen eta sagardogileek kanpotik erosi behar izan zuten sagarra, baina aurten ez da horrelakorik gertatu. Hainbat sagardotegitan bertako sagarra erabiliz egin dute aurtengo ekoizpena. Duela bi urte ere, nahikoa sagar izan zen eskualdeko sagastietan, baina azukre gutxikoa. Euri asko egin zuen udan eta sagarrak ez zuen ondo heltzeko aukerarik izan. Aurten, berriz, euri eta eguzki proportzio hobea izan da eta sagarraren kalitatea zein kantitatea egokia izan da.

### Sagardo berria dastatzeko garaia da

Hainbat sagar mota aurki daiteke eskualdeko sagastietan. Gaziak, gezak, mikatzak, mikatz-gaziak… sagardogileen lana izaten da sagardo ona egin ahal izateko proportzio egokia lortzea. Lan horretan aritu dira buru-belarri inguruko sagardogile guztiak. Bildutako sagarra garbitu, matxakan txikitu eta tolarean sagardo bihurtuko den zukua atera ondoren, zain egotea besterik ez da geratzen. Egunotan, txotx garaia irekitzean, sagardo berria dastatzeko aukera izango dugu.



LASTER, ITXURA HAU HARTUKO DUTE INGURUKO SAGARDOTEGIEK.

# Sagardo egarriz

Santo Tomas azokan bertako sagardoa dastatzeko aukera izan genuen. Epaimahaiak herriko sagardogile onena saritzeko enkargua zuen. Baina herritarrei ere, euren iritzia ematea eskatu zitzaien. Baserrian edo etxean sagardoa egiteko ohitura duen edonork har zezakeen parte (sagardotegiek ezin zuten parte hartu). Babarrun lehiaketan hogeitik gora ekoizlek parte hartu bazuten, sagardo lehiaketan hamabi herritar izan ziren izena eman zutenak. Lehen saria Arratzain baserriak jaso zuen. Bigarrena, Ioletak. Hirugarren saria, ordea, Izetarentzat izan zen. Hori epaimahaikideen iritzia izan zen. Baina azokara hurbildu ziren herritarren iritzia bestelakoa izan zen. Azokan izan zirenek lehian zen sagardoa dastatu eta botoa emateko aukera zuten. Eta herritarren iritziaren arabera, Gorostidi baserriko sagardoa izan zen estimatuena. Santo Tomasen ikusi genuen bezala, zeinbaitzuk, sagardo egarriz dira jada.



EPAIMAHAIAREN ETA HERRITARREN IRITZIAK EZBERDINAK IZAN ZIREN SANTO TOMAS AZOKAN.

# Manu Etxeberria, Gorostidi baserria: “Betidanik ezagutu dugu sagardoa”

**Santo Tomas egunean, Gorostidi baserriko sagardoak eskuratu zuen herritarren saria. Aitzaki horrekin, Manu Etxeberriaren hitzak bildu ditugu.**

**NOAUA. Nondik datorkizue sagardoa egiteko ohitura?**

**Manu Etxeberria.** Gure aitona zenaren garaitik dator sagardoa egiteko martxa hori. Txikitatik ezagutu dugu sagardoa etxean. Tolareak beti izan ditugu. Gure aitak ere martxa horretan jarraitu zuen eta orain gu gara bere horretan jarraitzen dugunak.

**N. Sagardoa egitea familia biltzeko aitzakia da, beraz.**

**M. E.** Gurean bai. Etxekoekin biltzen dugu sagarra. Anaia, guraso, osabak... Azkenean familia osoa biltzen gara.

**N. Etxeko sagarrarekin bakarrik egiten al duzue sagardoa?**

**M. E.** Bai, hala da. Sagar urte izugarria izan da azkena. Hamar-hamabost urte hauetan izan den handiena bai behintzat. Eta kalitate aldetik ere, nahiko ona. Hezetasuna izan da eta eguzkiak ere gozatu egin du.

**N. Santo Tomas eguneko Sagardo Lehiaketan zuen sagardoak sari bat jaso zuen. Pozgarria, ezta?**

**M. E.** Hasteko, poza handia ematen du horrelako festa batean parte hartzeak. Tradizio hauek mantentzea oso polita da. Galtzekotan izan zen baina azken aldi honetan nahiko ondo dabil.

Beraz, pozik parte hartzeagatik.



Txikitatik ezagutu dute sagardoa Gorostidi baserrian.

Hasteko hori. Ilusioa eta esperantza beti izaten duzu. Kontuan izan ez garela bi edo hiru, hamar direla lehian daudenak. Duela bi urte hirugarren saria atera genuen eta duela hiru urte lehenbizikoa. Irabazteko esperantza bagenuen. Esperantza apur bat baduzu sagardo polita eman duzula jakinda.

**N. Santo Tomasetan, gainera, epaimahaiaren eta herritarren iritzia ez zen berdina izan. Bitxia, ezta?**

**M. E.** Ez naiz batere harritzen bat ez etorri izana. Hau hirugarren lehiaketa da eta ez dira inoiz bat etorri. Akaso epaimahaiak kontuan hartzen dituenak ez ditu herriko jendeak kontuan hartzen, ez dakit. Baina ni pozik nago herritarrek emandako sari horrekin. Oso gustura etxeratu nintzen.

**N. Zuen baserrian, sagardoa ekoizteko joera honekin jarraituko al dute gaztetxoenek?**

**M. E.** Esperantza badaukagu. Oraindik gazteak dira, baina esperantza horrekin segi beharko dugu.

## TXOTX GARAIA

### NOIZ HASIKO DA?

ZUBIETA
**- Araeta sagardotegia**
Urtarrilaren 5ean
943 36 20 49 / 943 36 66 04
www.araeta.com

**- Astiazaran Iruin sagardotegia**
Urtarrilaren 7an
943 36 12 29

AGINAGA
**- Aginaga sagardotegia**
Urtarrilaren 5ean
943 36 67 10 / 943 37 06 68

**- Urdaira sagardotegia**
Urtarrilaren 14an
943 37 26 91

KALEZAR
**- Arratzain sagardotegia**
943 58 09 74 / 943 36 66 63

**- Saizar sagardotegia**
San Sebastian bezperan
943 362 228
www.sidrassaizar.com

SANTUENEA
**- Aialde Berri sagardotegia**
Urtarrilaren 14an
943 36 50 31




MAHUKA


TXIRIBOGA
TABERNA
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

# Giro ederra Santo Tomas azokan

**Azken orduan izan bazen ere, lagun ugari bildu zen Santo Tomas azokaren epelera. Taloa eta txorizoa dastatzeko aukera izan zen arren, abenduaren 19an NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu zuen azokan babarruna eta sagardoa izan ziren protagonista nagusiak.**

Babarrun lehiaketan, hogeitik gora ekoizleren artean, Kontxi Urdanpilleta izan zen nagusi. Bigarren saria, aldiz, Antonio Eizagirrerentzat izan zen; eta hirugarrena, German Zuriarrainentzat. Sagardo lehiaketan, ordea, hamar ekoizlek eman zuten izena. Sagardoaren kasuan, baserrian edo etxean sagardoa egiteko ohitura duen edonork har zezakeen parte. Lehen saria Arratzain baserriak jaso zuen. Bigarrena, Ioletak. Hirugarren saria, ordea, Izetarentzat izan zen. Hori epaimahaikideen iritzia izan zen. Azokara hurbildu ziren herritarrentzat, aldiz, Gorostidi baserriarena izan zen sagardo estimatuena. Azpimarratzekoa da epaimaikideen borondatea eta lana. Babarrun lehiaketarako, Tolosako Babarrun Elkarteko Xabier Goikoetxea, Arantxa Ariztimuño eta Amaia Gorospe izan genituen. Beraiekin batera, herriko sukaldari moduan, Xabier Tello. Atxega Jauregiko Mikel Garmendia ere gonbidatuta zegoen arren, azken orduan ezin izan zuen etorri.

